**SASIETA MANKOMUNITATEA**

# KREDITU ALDAKETARAKO

# ESPEDIENTEA

**AURREKONTUA**: 2011

**MOTA:** KREDITU GEHIGARRIAK

**ZK.:** 5

**PRESIDENTEAREN DEKRETUA**

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin behar dira, zerbitzuek eskatzen dituzten behar eta obligazioei aurre egiteko. Aurrekontu Orokorra osatzen duen Sasieta Mankomunitate honetako Aurrekontua garatzean eta gauzatzean nabarmendu denez, aurrekontu partidetan nahiko kredituri edo, hala badagokio, batere kredituri ez dago, indarrean dagoen aurrekontu egiturara moldatutako proposamen horretan ikusitakoaren arabera. Beraz, bidezkoa da une honetan kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, kreditu erabilgarriak proposamenean zehazten den kopuruan sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko. Hau guztia bideratuko da Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan jasotakoaren babespean.

Beasainen agindu eta izenpetzen dut, 2011ko azaroaren 14an

Presidentea                Nire aurrean:
Idazkari-Kontuhartzailea

**GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

| **Aurrekontu-partida** | **Kontzeptua** | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin-betikoak** |
| 1 0000.629.442.12.01 | | 24.500,00 | **12.880,00** | 37.380,00 |
| | **GUZTIRA** | 24.500,00 | **12.880,00** | 37.380,00 |

Beasainen, 2011ko azaroaren 14a
Presidentea,

Izp.: Azeari Andonegi Beristain

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

| Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak | Baliabidearen kontzeptua (11) | Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak | Baliabidearen partziala |
|---|---|---|---|
| 2 0000.870.000.00.01 | Kreditu gehig. finantz. diruzaintza gerakina | **12.880,00** | **12.880,00** |
| **GASTUEN GEHIKUNTZEN PAREKO GUZTIZKOA** | | **12.880,00** | **12.880,00** |

Beasainen, 2011ko azaroaren 14

Presidentea Idazkari-Kontuhartzailea

Izp.: Iñaki Eskisabel Zurututza

Sasieta Mankomunitate honetako Idazkari-Kontuhartzailea naizen honek, Presidenteak 2011ko azaroaren 14ko Dekretuaren bidez agindutakoa betez, eta gaikuntza nazionala duten Udal Administrazioko funtzionarien zuzenbide araudia erregulatzen duen irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak 4.1. artikuluaren g) eta h) apartatuetan ematen dizkidan funtzioez baliatuz, Presidenteak kredituak guztira 12.880,00 euroko zenbatekoz sortu edo gehitzeko proposamena aztertu ondoren, Sasieta Mankomunitate honen ekitaldi honetako Aurrekontuari eragiten diona, honako txosten hau idatzi dut:

**TXOSTENA**

Zerrendatutako gastuak proposameneko kopuruan gauzatu ahal izateko, ez dago nahiko kreditu erabilgarririk Mankomunitateko Batzarrak onetsitako lotura juridikoko mailan finantzatzera destinatutako aurrekontu partidetan.

Era berean, aldaketa proposamenean ageri diren ordainketa kredituak kreditu zabalgarri gisa kalifikatu ez direla jasota gerarazi da.

Eragindako Aurrekontuan proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko, bidezkoa da kreditu gehigarrien espedientea erabiltzea eta izapidetzea, zeren Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 34.1. artikuluan hondar izaera ematen badio ere, ezinezkoa baita proposameneko gastuak aipatu araudian jasotako gainerako kreditu aldaketarako modalitateen bidez estaltzea.

Proposatutako ordainketarako aurrekontu kredituen gehikuntzek nahiko finantzaketa dute, aipatutako Foru Arauaren 34.2b) artikuluak adierazitako baliabideetatik datorrena.

Zerrendatutako gastuen beharra eta premia behar bezala egiaztatuta dago, Presidentearen txostenean espresuki jasota geratu baita eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ateratzen baita.

Kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espediente hau onesteko eskumena Presidentearena da, aipatutako Foru Arauaren 34.3. artikuluan eta Aurrekontu Egikaritze Arauaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere onesteko eskumena presidentearena dela xedatzen da utean zehar eta metatzeagatik aurrekontuaren %5 beino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarrietarako.

2011ko hasierako aurrekontua: 10.272.150,00 €
Hasierako aurrekontuaren %5a 513.607,50 €
Presidenteak onartutako kreditu gehigarriak (espediente honen xedea den hau kontutan izan gabe) 386.370,00 €.

Hori guztia dela-eta, bidezkoa da tramite honen gai den espedientearen aldeko txostena ematea azaldutako eran.

Beasainen, 2011ko azaroaren 14a
Idazkari-Kontuhartzailea,

Izp.: Iñaki Eskisabel Zurututza

**DIRUZAINTZAKO GERAKINA**

Iñaki Eskisabel Zurututzak, Sasieta Mankomunitateko Idakari-Kontuhartzailea naizen honek

**ZIURTATZEN DUT:**

2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra osatzen duen Sasieta Mankomunitate honen Aurrekontuaren Likidazioaren arabera, 2011ko apirilaren 18ko Mankomunitateko Presidenteak onetsitakoa, diruzaintzako gerakin gordina 4.810.692,46 eurokoa da.

Eta espedientean jasota gera dadin, ziurtagiri hau luzatzen dut Presidentearen aginduz eta horren oniritziaz.

Beasainen, 2011ko azaroaren 14an

O. I.
Presidentea

**DIRUZAINTZAKO GERAKIN ERABILGARRIA**

Sasieta Mankomunitateko Idazkari-Kontuhartzaileak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 48. artikuluko 6. eta 7. zenbakietan jasotakoaren babespean, diruzaintzako gerakin likidoa kalkulatu du, finantzaketa baliabide gisa erabilgarri izan dadin, honako xehekapen honen arabera:

| | |
|---|---|
| - Diruzaintzako gerakin gordina....................................................... | 4.810.692,46€ |
| - Kobratugaitzak diren eskubideak ....................................................(-) | -28.405,91€ |
| Diruzaintzako gerakin likidoa ............................................. | 4.782.286,55€ |
| - Finantzaketa lotua duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina .... (-) | 697.642,73€ |
| Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina............ | 4.084.643,82€ |
| - Onetsitako kreditu aldaketarako espedienteak finantzatzeko erabili den diruzaintzako gerakina................................................................(-) | -914.875,72€ |
| Diruzaintzako gerakin likido erabilgarria ................................ | 3.169.768,10€ |

Beasainen, 2011ko azaroaren 14a
Idazkari-Kontuhartzailea,

Izp.: Iñaki Eskisabel Zurututza

Dekretu zbkia.: 27/2011

**PRESIDENTEAREN DEKRETUA**

Sasieta Mankomunitate honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Honen aurrean eta bere eskurantzen erabileran, presidentziak zera

**E B A Z T E N D U**

**Lehenik.-** Sasieta Mankomunitate honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIKUNTZAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| VI | Inbertsio errealak | 12.880,00 |
| **GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...** | | 12.880,00 |

**FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| VIII | Diruzaintzako gerakina | 12.880,00 |
| **GUZTIRA** | | |

Presidenteak agindu eta izenpetzen du Beasainen bi mila eta hamaikako azaroaren hamabostean.

Nire aurrean,
Idazkari-Kontuhartzailea

Izp.: Azeari Andonegi Beristain

Izp.: Iñaki Eskisabel Zurututza

**KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA ONESTEKO ERABAKIA**

IÑAKI ESKISABEL ZURUTUTZAk, SASIETA MANKOMUNIATE honetako IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA naizen honek

**ZIURTATZEN DUT:** Mankomunitateko Presidenteak, 2011ko azaroaren 15ean emandako ebazpen bidez, hitzez hitz honako hau dioen Erabakia hartu zuela:

**"Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zbk.dun kreditu aldaketa espedientea onesteko proposamena.**

Sasieta Mankomunitate honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Honen aurrean eta bere eskurantzen erabileran, presidentziak zera

**E B A Z T E N  D U**

**Lehenik.-** Sasieta Mankomunitate honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIKUNTZAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| VI | Inbertsio errealak | 12.880,00 |
| **GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...** | | 12.880,00 |

**FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| VIII | Diruzaintzako gerakina | 12.880,00 |

| | | |
|---|---|---|
| | | |
| **GUZTIRA** | | |

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Eta espedientean horrela jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Presidentearen aginduz eta horren oniritziz, Beasainen, 2011ko azaroaren 15ean.

O. I.
Presidente

**DILIGENTZIA.-** Data honetan jendaurrean ikusgai jartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko igorri dela eta horren kopia bat ohiko ediktu taulan jarri dela jasota gerarazteko. Halaber, ale bat espedienteari gaineratu zaio.

......................................(e)n, 20.....(e)ko ....................................ak ....

(3) .....................................

**DILIGENTZIA.-** Aurreko diligentzian adierazitako iragarkia 20.....(e)ko .........................aren ....(e)ko ..... zk.ko GAOn argitaratu dela jasota gerarazteko, ediktu taulan jarrita dagoen iragarkiaren alean horren berri emanez.

...............................................(e)n, 20.....(e)ko ....................................ak ....

(3) .......................................

............................................... jaunak/andreak, (1) ........................................... honetako (3) ........................................... naizen honek

**ZIURTATZEN DUT**: (7) ................................................ak 20.....(e)ko ................. ...................aren ....(e)an egindako bilkuran onetsi zuen kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako ...... zk.ko espedientea, 20.....(e)ko ..............................aren ....(e)ko ...... zk.ko GAOn argitaratu eta ediktu taulan jarritako iragarkiaren bidez 15 eguneko erregelamenduzko epean jendaurrean ikusgai jarri ondoren, 20.....(e)ko .......................aren ....(e)an amaitzen den epe horretan zehar (16) .................................................................................. ..............................................................................

Eta espedientean horrela jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut (2) ..............................................aren aginduz eta horren oniritziaz, .................................(e)n, 20.....(e)ko ...........................aren ....(e)an.

O. I.
(2) ..........................................

**(2) ..........................................AREN DEKRETUA**

(1) ............................................ honen Aurrekontuaren barnean izapidetutako kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako ...... zk.ko espedientearen aurka (17).................................... ..........................................................., 20.....(e)ko ...........................aren ....(e)ko bilkuran hartutako hasierako onespen erabakia behin-betikotzat jo da. Hori dela-eta, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluko 3 eta 4. zenbakietan behin-betiko onespen iragarkia argitaratzeari eta espedientearen kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzeari buruz xedatutakoa bete dadin.

.............................(e)n, 20.....(e)ko ..............................ak ....

(2) ....................................

**DILIGENTZIA.-** Data honetan kreditu aldaketarako espedientearen behin-betiko onespenari dagokion iragarkia, kapitulu mailan laburbilduta, jende orok honen berri izan dezan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko igorri dela eta horren kopia bat ediktu taulan jarri dela jasota gerarazteko.

Data berean, adierazitako espedientearen kopia bat igorri zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

.............................(e)n, 20.....(e)ko ..............................ak ....

(3) .........................................

**GASTUEN AURREKONTUKO KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN DILIGENTZIA EGITEKO OHARRAK.**

**(1)** ..............................................................ko Udala
.............................................................. organismo autonomoa
.............................................................. Mankomunitatea

**(2)** Alkate-lehendakaria (Udalaren kasuan)
Lehendakaria (organismo autonomo edo mankomunitatearen kasuan)

**(3)** Idazkaria edo, hala badagokio, idazkari-kontuhartzailea.

**(4)** Fondoen kontuhartzailea edo, hala badagokio, idazkari-kontuhartzailea.

**(5)** Udalbatzarra edo Mankomunitateko Batzarra.

**(6)** Bidezkoa bada, honako hau adierazi: "Halaber, Aurrekontuan proposatutako gastu berrietarako ordainketa kredituirik kontsignatuta ez dagoela jasota gerarazi dut".

**(7)** Udalbatzarra edo, hala badagokio, Mankomunitateko Batzarra.

**(8)** Alkate-lehendakariaren edo .............................. Mankomunitateko lehendakariaren Ebazpena edo, eskumen horiek eskuordetu zaizkienean, Udalbatzarraren edo Gobernu Batzordearen Erabakia.

**(9)** "Adierazitako Aurrekontuan jasotako gainerako baliabideak hasierako aurreikuspenen arabera garatzen ari dira. Beraz, aurreko ziurtagirian adierazitako sarrera berri edo handiagoak kreditu gehigarrien espedientean proposatutako gehikuntzak finantzatzeko erabil daitezke", edo bestela "adierazitako Aurrekontuan jasotako baliabideren bat ez dela hasierako aurreikuspenen arabera garatzen. Beraz, aurreko ziurtagirian adierazitako sarrera berrietatik, ........................... euroko kopurua baizik ezin da erabili kreditu gehigarrien espedientean proposatu diren gehikuntzak finantzatzeko." Sarrera berri edo handiagoak kreditu aldaketarako beste espediente batzuk finantzatzeko osorik edo zati batean erabili badira, zirkunstantzia hau jasota geraraziko da eta haiek finantzaketa baliabide txikiagoen gisara gutxituko dira.

**(10)** Zerbitzuetako zinegotzi delegatua, edo informazio batzordeetako buruak, edo udalean ordezkapena duten talde politikoen bozeramaleak, edo arloetako arduradunak, edo zerbitzuburuak, edo zentroetako buruak, kredituek eragiten dieten zerbitzuetako beste entitate edo organismo autonomoetan.

**(11)** Jarraian adierazitako finantzaketa iturriak erabiliko dira, eta bakoitzean aurrekontuetako zein sarrera kontzeptutan edota gastu partidatan jasotzen diren xehetuko da.

1.- Diruzaintzako gerakina.
2.- Sarrera berri edo handiagoak.
3.- Kredituen deuseztapenagatiko gastuetako bajak.
4.- Kreditu eragiketak.

**(12)** .................................... Ogasuneko Informazio Batzordea edo Kontuen Batzorde Berezia, honek haren eskumenak bere gain hartu dituenean.

**(13)** Ohikoa edo ez ohikoa.

**(14)** Bertaratuen aho batez, edo gehiengo soila osatzen duten aldeko .................................. botorekin

**(15)**

| **Kapituluak** | **Izena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|
| 8 | Diruzaintzako gerakina<br>Sarrera berri edota handiagoak<br><br>Gastuen bajak kredituen deuseztapenagatik | |
| 9 | Pasibo finantzarioak | |
| | **GUZTIRA (GEHIKUNTZAK) ...** | |

**(16)** "Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu" edo bestela, "........ erreklamazio aurkeztu dira eta espedienteari gaineratu zaizkio".

Jendaurrean ikusgai jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu bada, (7) ............................................. .........................ak hilabeteko epean ebatzi beharko ditu eta espedientea argitaratu eta igortzeko tramite berak jarraitu beharko ditu, erreklamaziorik aurkeztu ez bailitzan.

**(17)** "Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero" edo "aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren".